ZARAUZKO UDALA

ZERBITZUETAKO KONTRATUA PROZEDURA IREKI BIDEZ ADJUDIKATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULEN AGIRIA	**PLIEGOS DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO**
ZARAUZKO UDALERAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZUA	**SERVICIO DE ATENCIÓN TELEFÓNICA PARA EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ.**
2021ik200013	**2021ik200013**
I. XEDAPEN OROKORRAK	**I. DISPOSICIONES GENERALES**
1. KONTRATUAREN XEDEA	**1. OBJETO DEL CONTRATO**
Kontratu honen xedea da telefono bidezko arreta zerbitzua ematea.	El objeto del presente contrato es la prestación del servicio de atención telefónica.
Kontratuaren xedea betetzeko baldintza hauek jarraitu beharko dira: kontratuan, plegu hauetan eta Baldintza Teknikoen Agirian adierazitakoak. Agiri horiek guztiek kontratu izaera dute.	La ejecución del objeto del contrato debe adecuarse a las condiciones que figuran en el contrato, en el presente Pliego, así como en el Pliego de Prescripciones Técnicas, documentos que tienen carácter contractual
Azaroaren 8ko 9/2017 ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen laugarren xedapen osagarrian oinarrituta, kontratu hau Enplegu-zentro Bereziei erreserbatuta dago	El presente contrato queda reservado, en base a la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (en adelante LCSP), a Centros Especiales de Empleo.
CPV nomenklaturaren kodifikazioa, kontratuaren xedeari dagokiona: 64214200-1	Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato: 64214200-1
Kontratu honen xedea sorta bakar batean dator.	El objeto de este contrato viene configurado como un único lote
Zerbitzu horretan ez da bidezkoa loteak banatzea, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 99.3 artikuluaren arabera.	En ese servicio no procede la división de lotes, de conformidad con el artículo 99.3 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público
Zerbitzua batera emateko, bitartekoak optimizatzeko printzipioei jarraitzen zaie. Lotekako lizitazioak kostuak nabarmen handitzea ekarriko lioke tokiko ogasunari, ezinbestean, eta hori gastu publikoa arrazionalizatzeko printzipioen aurka doa	La prestación conjunta de los servicios se realiza de acuerdo a principios de optimización de medios. La licitación por lotes, inexorablemente conllevaría un importante incremento de costes para la hacienda local, lo que va en contra de los principios de racionalización del gasto público
2. ARAUBIDE JURIDIKOA	**2. RÉGIMEN JURÍDICO**
Egingo den kontratua zerbitzuetako kontratu modura sailkatzen da, eta honako arau eta lege hauen menpe garatuko da: azaroaren 8ko 9/2017	La contratación a realizar se tipifica como contrato de servicio de conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público (en adelante

Legea, Sektore Publikoko Kontratuena-aurrerantzean SPKL- (17 artikulua); 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendua onartzen duena, horrek indarrean dirauen bitartean; maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duena; edo horiek ordezkatuko dituzten erregelamenduzko arauak, eta Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan jasotako klausulak.	LCSP), quedando sometida a dicha Ley, así como al Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, en tanto continúe vigente, y al Real Decreto 817/2009 , de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007 de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, o a las normas reglamentarias que los sustituyan (en adelante normativa de desarrollo de la LCSP), y a las cláusulas contenidas en el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
Espediente arrunta tramitatuko da, kontratua prozedura ireki bidez adjudikatzeko, SPKLaren 156 artikuluan xedatutakoaren arabera.	Se tramita expediente ordinario para la adjudicación del contrato mediante procedimiento abierto, según lo dispuesto en el artículo 156, de la LCSP
3. KONTRATAZIO-ORGANOA	**3. ÓRGANO DE CONTRATACIÓN**
SPKLak 2. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera, Alkatetzak izango du kontratazio hau egiteko ahalmena.	Por razón de lo dispuesto en la Disposición Adicional 2ª la LCSP, la competencia para la presente contratación corresponde a la Alcaldía.
Kontratazio-organo horrek du administrazio-kontratua adjudikatzeko ahalmena, eta, horrenbestez, bere eskumenekoak izango dira honakoak ere: kontratua interpretatzea; kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea; kontratua aldatzea; eta kontratua amaitzea. Horiek guztiak araudi aplikagarriarekin bat etorriz. Horiei buruz hartutako akordioak betearaztekoak izango dira, nahiz eta enpresa adjudikaziodunak eskubidea izango duen akordio horiek jurisdikzio eskudunaren aurrean inpugnatzeko.	El mencionado órgano tiene facultad para adjudicar el correspondiente contrato administrativo y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su ejecución, modificarlo y acordar su resolución, con sujeción a la normativa aplicable. Los acuerdos que a este respecto dicte serán ejecutivos, sin perjuicio del derecho de la empresa adjudicataria a su impugnación ante la jurisdicción competente.
4. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA	**4. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR**
Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna daukaten pertsona fisiko zein juridikoek hartu ahal izango dute parte kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta euren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, SPKLak 71 artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta.	Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 71 de la LCSP.
Pertsona juridikoak adjudikaziodun izan daitezke, soil-soilik euren prestazioak jardueraren xede, helburu edo arloan sartuta badaude eta euren estatutu edo fundazio-arauetan hala jasota badago. Gainera, kontratua behar bezala betetzeko	Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios, y deberán disponer

beharrezkoa den antolakuntza edukiko du (nahikoa langile eta materialekin).		de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato.
Era berean, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo ahalorde askietsiaren bidez baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Pertsona juridikoen ordezkariek agiri bidez frogatu beharko dute ordezkari izateko ahalmena dutela. Kasu batean zein bestean, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak ordezkariari ere aplikatuko zaizkio.		Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.
Prozedura tramitatzen ari den bitartean eta adjudikazioa egin baino lehen enpresa lizitatzailearen nortasun juridikoa amaitzen bada (fusioagatik, zatiketagatik edo bere enpresa-ondarea eskualdatzeagatik), orduan honako hauetako batek hartuko du prozeduran hark zuen lekua: sozietate bereganatzaileak, fusioaren ondorioz sortutakoak, zatiketaren onuradunak edo ondarea bereganatu duenak, baldin eta kontratatzeko gaitasuna izan eta hartarako inolako debekurik ez badu eta sailkapena eta/edo kaudimena duela egiaztatzen badu, betiere adjudikazio prozeduran parte hartzeko plegu hauetan eskatutako baldintzetan.		Si durante la tramitación del procedimiento y antes d,e la adjudicación se produce la extinción de la personalidad jurídica de la empresa licitadora por fusión, escisión o por la transmisión de su patrimonio empresarial, le sucederá en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio, siempre que reúna las condiciones de capacidad y ausencia de prohibiciones de contratar y acredite la clasificación y/o solvencia en las condiciones exigidas en este Pliego para participar en el procedimiento de adjudicación.
Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena enpresa adjudikaziodunak bakarrik egiaztatuko ditu.		La capacidad y solvencia para contratar se acreditará solamente por la empresa adjudicataria
5. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA GAUZATZE EPEA		**5. DURACIÓN DEL CONTRATO Y PLAZO DE EJECUCIÓN**
5.1.-Kontratuaren iraupena, gehienez ere, lau urtekoa izango da luzapenak barne.		5.1. La duración del contrato será como máximo, de cuatro años, incluidas las prórrogas
5.2. Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da formalizatzen denetik aurrera, eta luzatu ahal izango da, baina iraupen osoa, luzapenak barne, ezin izango da lau urtetik gorakoa izan.		5.2. El plazo de ejecución del contrato será de un año desde su formalización, susceptible de prórroga anual sin que la duración total, incluidas las prórrogas pueda exceder de cuatro años**.**
Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta enpresariarentzat derrigorrezkoa izango da, betiere, kontratuaren iraupen-epea amaitu baino bi hilabete lehenago gutxienez bidali bazaio aurreabisua.		La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para la empresa adjudicataria, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato
Indarraldia eta, hala badagokio, luzapenak igaro ondoren, kontratua automatikoki amaituko da, eta enpresa adjudikaziodunak zerbitzua emateari utziko dio. Hala ere, nahitaez jarraitu beharko du, baldin eta adjudikaziodunaren xede den zerbitzu		Transcurrido el plazo de vigencia, y en su caso las prórrogas, quedará automáticamente terminado el contrato y la empresa adjudicataria cesará en la prestación del servicio. No obstante, estará obligada a continuar, siempre y cuando se haya

berria lizitatzeko espedientea hasi bada eta enpresa adjudikaziodun berriak bere gain hartu arte. Aldi horretan, kontratuan aurreikusitako prestazioak jasoko ditu.	iniciado el expediente para licitar el nuevo servicio objeto de la adjudicación y hasta que la nueva empresa adjudicataria se haga cargo del mismo, percibiendo las prestaciones previstas en el contrato.
6. AURREKONTUA. LIZITAZIO TASA	**6. PRESUPUESTO-TIPO DE LICITACIÓN**
6.1. Lizitazioaren gehieneko prezioak honako hauek izango dira zerbitzu bakoitzeko:	6.1.El precio máximo de licitación es el siguiente, por cada uno de los servicios:
- Telefono bidezko arreta-zerbitzua: 17,15 euro orduko BEZ barne (14,17 euro + 2,98 euro BEZ) eta teleoperadore bakoitzeko,	- Servicio de atención telefónica: 17,15 euros/hora IVA incluido (14,17 euros + 2,98 euros de IVA) por persona teleoperadora,
- Koordinazio zerbitzua: 22,10 euro orduko BEZ barne (18,26 euro + 3,84 euro BEZ barne)	-Servicio de coordinación: 22,10 euros /hora IVA incluido (18,26 euros + 3,84 euros de IVA)
-Azpiegitura teknikoa (telefonia, lizentziak, azpiegitura….): 8.470,00 euro urtean BEZ barne (7.000,00 euro + 1.470 euro BEZ)	Infraestructura técnica (coste telefonía, licencias, infraestructura….): 8.470,00 euros/año IVA incluido (7.000,00 euros + 1.470 euros de IVA)
Aurreko prezio guztiak gehienekoak izango dira; hortaz, lizitatzaileek prezio horiek beherantz hobetzeko aukera izango dute. Lizitazio-prezioa gainditzen duen eskaintzarik ez da onartuko.	**Todos los precios anteriores tienen carácter de máximos y podrán ser mejorados a la baja por quienes liciten. No se admitirán ofertas que superen los precios de licitación.**
6.2. Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 101.a artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau izango da kontratuaren gutxi gorabeherako balioa, kontuan hartuta noiz hasten den eta zer luzapen izan ditzakeen (eta BEZ sartu gabe): 202.714,88 euro.	6.2. De conformidad con lo establecido en el art. 101.a de la LCSP el valor estimado del contrato, teniendo en cuenta su duración inicial y las posibles prórrogas del mismo, y excluido el IVA, es de 202.714,88 euros
7. PREZIOAK BERRIKUSTEA	**7. REVISIÓN DE PRECIOS**
Prezioa ez da berrikusiko.	No procede la revisión del precio
8. FINANTZIAZIOA	**8. FINANCIACIÓN**
SPKLren 117.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko dagokion aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa edukitzearen baldintzapean geratuko da kontratu honen benetako adjudikazioa	La adjudicación efectiva del presente contrato quedará sometida a la condición suspensiva de existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del contrato en el presupuesto correspondiente, según lo establecido en el artículo artº 117.2 de la LCSP.

Halaber, Udalak konpromisoa hartu du zerbitzu honek eragindako hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere behar adina kreditu jartzeko.	Asimismo, el Ayuntamiento se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.
9. ORDAINKETA	**9. PAGO**
Prezioa zatikatuta ordainduko da. Horretarako enpresa edota entitate adjudikaziodunak hilero FAKTURA bat aurkeztuko du, aurreko hilean egindako lanei dagokiena.	El pago del precio se efectuará de forma fraccionada, contra la presentación mensual, por parte de la empresa adjudicataria, de UNA FACTURA, como consecuencia de los trabajos realizados en el mes inmediatamente anterior.
Faktura onartu ondoren, SPKLak 198 artikuluan jarritako legezko epeetan ordainduko da.	Una vez aprobada la factura, esta será abonada dentro de los plazos legalmente previstos en el artículo 198 de la LCSP
Enpresa adjudikaziodunari ez dagozkion arrazoiengatik, kontratuaren helburu diren prestazioak aldi batean betetzen ez badira, dagokion ziurtagirian kendura proportzionalak egingo dira.	Cuando por causas no imputables a la empresa adjudicataria dejaren de efectuarse circunstancialmente las prestaciones objeto del contrato, se verificará la deducción proporcional en la factura correspondiente.
Abenduaren 27ko 25/2013 Legean xedatutakoaren arabera, faktura elektronikoa egin behar duten erakundeek Zarauzko Udalari igorri beharko dizkiote fakturak, formatu elektronikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Faktura Elektronikoen Sarrera Puntu Orokorraren bidez (www.udalgida.net). Zarauzko Udala hor atxikita dago, eta hauek dira Udalaren DIR3 kodeak: DIR3 (1+2+3) L01200795	Las entidades obligadas a la emisión de factura electrónica conforme a lo dispuesto en la Ley 25/2013 de 27 de diciembre, deberán remitir sus facturas al Ayuntamiento de Zarautz en formato electrónico a través del Punto General de Entrada de Facturas Electrónicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa (www.udalgida.net) al que el Ayuntamiento de Zarautz está adherido, utilizando los códigos DIR3 del Ayuntamiento: Códigos DIR3 (1+2+3): L01200795
10. BERMEAK	**10. GARANTÍAS**
Azaroaren 8ko 9/2017 ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen laugarren xedapen osagarrian oinarrituta, ez dagokio bermerik.	No procede según lo dispuesto en la Disposición Adicional Cuarta de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre de Contratos del Sector Público.
II.- <u>KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA</u>	**II.- <u>ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO</u>**
11. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA	**11. PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN**
Kontratu hau prozedura ireki bidez adjudikatuko da.	La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto
Kontratuaren adjudikazioa egiteko honako balorazio irizpideak hartuko dira oinarritzat, bakoitzak duen garrantzi eta haztapenaren arabera beheraka ordenatuta:	Los criterios que han de servir de base para la adjudicación del contrato, relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye, son los siguientes:
11.1. Formula bidez ebaluatu daitekeen irizpidea:	11.1. Criterio evaluable mediante fórmula: 55

55 puntu 11.2. Formula bidez ebaluatu ezin den irizpidea: 45 puntu 11.1. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEKEEN IRIZPIDEA: GEHIENEZ 55 PUNTU ***(c artxibo elektronikoan sartu beharrekoa)*** Eskaintza ekonomikoa 55 puntu gehienez Atal honetan 55 puntu emango dira gehienez: - **35 puntu** gehienez, telefono bidezko arreta-zerbitzuan eskainitako orduko prezioagatik, teleoperadore bakoitzeko. - **15 puntu** gehienez, koordinazio-zerbitzuan eskainitako orduko prezioagatik. - **5 puntu** gehienez, eskainitako azpiegitura teknikoaren urteko prezioagatik (telefonia, lizentziak, azpiegitura….). **Eta horien guztien emaitza batuko da proposamen ekonomikorik onena baloratzeko**. Honako formula honi jarraituko zaio atal bakoitzean eskaintza ekonomiko onena kalkulatzeko: Vo= (Vim/Vio) x…… (35, 15 edota 5, kasuan kasu) *Esanahia:Vo= eskaintzaren balorazioa* *Vim= eskainitako zenbateko txikiena (Vio-ren txikiena)* *Vio=eskaintzaren zenbatekoa* Eskaintzak neurriz kanpokoak direla edo balore anormalak dituztela ebazteko, aztertu egingo da lizitatzailea ondorengo kasu hauetakoren batean sartzen ote den, Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak 85. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz: – Lizitatzaile bakarra izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak lizitazioaren oinarrizko aurrekontua portzentajezko 25 unitatetan beheratzen badu.		puntos 11.2. Criterio no evaluable mediante fórmula:45 puntos 11.1. CRITERIO EVALUABLE MEDIANTE FÓRMULA: PUNTUACIÓN MÁXIMA DE 55 PUNTOS ***(a incluir en el archivo electrónico c)*** Proposición económica: Hasta 55 puntos Este apartado se valorará con un máximo de **55 puntos**: -**35 puntos** máximo por el precio/hora ofertado del servicio de atención telefónica por persona teleoperadora -**15 puntos** máximo por el precio/hora ofertado del servicio de coordinación **-5 puntos** máximo por el precio/año ofertado de la infraestructura técnica (coste telefonía, licencias, infraestructura…. **Y se sumará el resultado de todos ellos para valorar la mejor propuesta económica** Se seguirá la siguiente fórmula para calcular la mejor oferta económica en cada uno de los apartados: Vo=(Vim/Vio) x….. (35,15 o 5 en cada caso) *Donde Vo= Valoración oferta en cuestión* *Vim=Importe menor ofertado (El menor de Vio)* *Vio=Importe de la oferta en cuestión* Para la valoración de las ofertas como desproporcionadas o con valores anormales, según lo dispuesto en el art. 85 del Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, se analizará si la empresa licitadora incurre en alguno de los siguientes supuestos: – Cuando, concurriendo un solo licitador/a, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales.

– Bi lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak beste diru-eskaintza portzentajezko 20 unitatetan beheratzen badu. – Hiru lizitatzaile izanik, aurkeztutako eskaintza ekonomikoak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, batez besteko hori ateratzeko ez da sartuko eskaintza ekonomiko altuena, baldin batez besteko hori baino portzentajezko 10 unitate altuagoa bada. Dena den, portzentajezko 25 unitateko beherapena neurriz kanpokotzat joko da. – Lau lizitatzaile edo gehiago izanik, aurkeztutako eskaintzak portzentajezko 10 unitatetan beheratzen badu aurkeztutako eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa. Hala ere, baldin eskaintza horien artean batez besteko hori portzentajezko 10 unitatetan gainditzen duten eskaintzak badaude, batez besteko berria kalkulatuko da, adierazitako azken kasu horretan sartzen ez diren eskaintzekin bakarrik. Dena den, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, batez besteko berria kopuru baxuenak dituzten hiru eskaintzekin kalkulatuko da.	– Cuando concurran dos licitadores/as, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta. – Cuando concurran tres licitadores/as, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales. – Cuando concurran cuatro o más licitadores/as, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media sólo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía.
Eskaintzetakoren bat/batzuk anormaltasun presuntzioan baldin badago/badaude, lizitatzaile horiei 5 egun balioduneko epea emango zaie, eskaintza hori baldintza horietan bete ahal izateko inguruabarren justifikazio egoki bat aurkezteko, SPKLren 149.4. artikuluan horri buruz aipatzen diren irizpideekin.	Cuando alguna de las ofertas esté incursa en presunción de anormalidad, se concederá a las empresas licitadoras afectadas un plazo de 5 días hábiles para que puedan presentar una justificación adecuada de las circunstancias que les permiten ejecutar dicha oferta en esas condiciones, con los criterios que se señalan al respecto en el artículo 149.4 de la LCSP
11.2 FORMULA BIDEZ EBALUATZEKOAK EZ DIREN IRIZPIDEAK: GEHIENEZ 45 PUNTU (***B ARTXIBO ELEKTRONIKOAN SARTU BEHARREKOA)***	11.2 CRITERIOS NO EVALUABLES MEDIANTE FÓRMULAS: PUNTUACIÓN MÁXIMA 45 PUNTOS ***(A INCLUIR EN EL ARCHIVO ELECTRÓNICO B)***
11.2.1. Lanerako plana (gehienez 40 puntu) Baloratuko dira: -zerbitzurako propostautko antolaketa eta kudeaketa-plana (gehienez 15 puntu) -zerbitzu emate-metodologia (deien itxaronilarak kudeatzea, lehentasunen kudeaketa-(gehienez 10 puntu) -laneko antolatzeko tresnak (gehienez 10 puntu)	11.2.1.Plan de trabajo:máximo 40 puntos Se valorará: -la organización y el plan de gestión propuestos para el servicio (máximo 15 puntos) -la metodología de prestación del servicio (gestión de las colas de esperas de llamadas, gestión de prioridades, etc., (máximo 10 puntos) -los instrumentos de organización del trabajo (máximo 10 puntos) -los indicadores de seguimiento de actividad

-proposatutako jarduera-segimendu adierazleak eta mailegatutako zerbitzuen kantitaeari eta kalitateari dagokionez. (gehienez 5 puntu) Atal horren garapenak gehienez 15 orri hartuko ditu, testu orriak DIN A4 formatukoak izango dira, eta plano eta katalogoenak DIN A3 formatuan egin daitezke. 15 orrialdetik aurrerako edukia ez da baloratuko. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 146.3 artikuluaren arabera, balorazio orokorrerako onartuak izateko beharrezkoa izango da formula bidez kuantifikatzekoak ez diren irizpideetan, enpresa lizitatzaileek % 50eko gutxieneko muga lortzea balio-iritzi baten mende dauden eta formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideen multzoan. Hala, kontratazio-mahaiak ez ditu onartuko ondorengo honetara iristen ez diren eskaintzak. **20 puntu** 11.2.2. Beste zerbitzu batzuk (gehienez 5 puntu) -enpresak emandako zerbitzuaren kalitatea autokontrolatzeko eta neurtzeko mekanismoak edukitzea (3 puntu) -irudia eta herritarren aldetik zerbitzuarekiko asebetetzea, hedapena eta konfidantza dakartzaten (2 puntu) proposamenak Atal horren garapenak DIN A4 formatuko 5 orri hartuko ditu gehienez. Ez dira zenbatuko eskaintza ulertzen laguntzeko diren azal eta aurkibideak. **12. ESKAINTZEN AURKEZPENA** Kontratazio honen espedientea eta horri lotutako dokumentazio teknikoa udal honetako Herritarren Arreta Zerbitzuan aztertu ahal izango dira, bulegoak jendearentzat irekita dauden ordutegian, lizitazio-iragarkia Zarauzko Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.		propuestos y la sistemática de aportación de información al Ayuntamiento en relación con la cantidad y la calidad de los servicios prestados (máximo 5 puntos) Su desarrollo total se extenderá a 15 páginas como máximo, las páginas de texto serán en formato DIN A4. No se valorará el contenido que exceda de la página 15. No se contabilizarán las portadas ni los índices que faciliten la comprensión de la oferta. Conforme al artículo 146.3 de la LCSP, para ser admitidos a la valoración global, se exigirá que, en los criterios no cuantificable mediante fórmulas, las empresas licitadoras alcancen un umbral mínimo del 50% de la puntuación en el conjunto de los criterios sometidos a un juicio de valor y no evaluables mediante fórmulas, de forma que no sean tenidas en cuenta por la Mesa de Contratación las ofertas cuya puntuación no alcance lo siguiente: **20 puntos** 11.2.2. Otros servicios: máximo 5 puntos Se valorará: -La existencia de mecanismos de autocontrol y medición de calidad del servicio prestado por la empresa (máximo 3 puntos) -Propuestas que conlleven la mejora de la imagen y de la satisfacción, difusión y la confianza de la ciudadanía hacia el servicio (máximo 2 puntos) Su desarrollo total se extenderá a 5 páginas como máximo, las páginas de texto serán en formato DIN A4. No se valorará el contenido que exceda de la página 5. No se contabilizarán las portadas ni los índices que faciliten la comprensión de la oferta. **12. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES** El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el Servicio de Atención Ciudadana de este Ayuntamiento en horario de apertura al público de las oficinas, todos los días hábiles a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de licitación en el **Perfil del Contratante** del Ayuntamiento de Zarautz y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones

Era berean, Zarauzko Udaleko Kontratatzailearen Profilaren bidez sartu ahal izango da kontratazioan, bere dokumentazio teknikoan, pleguetan eta dokumentazio osagarrian, lizitazio-iragarkia Zarauzko Udaleko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.	Asimismo, el acceso a esta contratación, la documentación técnica unida al mismo, los pliegos y a la documentación complementaria podrá realizarse a través del Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Zarautz, a partir del día siguiente a aquel en que aparezca publicado el anuncio de licitación en el Perfil del Contratante del Ayuntamiento de Zarautz y hasta el vencimiento del plazo de presentación de proposiciones
Kontratazio unitatearekin harremanetan jartzeko, helbide honetara joan:	Para contactar con la Unidad de Contratación, dirigirse a:
KONTRATAZIO UNITATEA Kale Nagusia 29 - 20800 Zarautz Tel: 943 005100 Faxa: 943 005200 E-maila: kontratazioa@zarautz.eus Kontratatzailearen profila: http://www.zarautz.eus	UNIDAD DE CONTRATACIÓN Kale Nagusia 29 – 20800 Zarautz Tel: 943 005100 Fax: 943 005200 E-mail: kontratazioa@zarautz.eus Perfil del contratante: http://www.zarautz.eus
Proposamenak aurkezteko, soilik **bitarteko elektronikoak erabiliko dira**, SPKLaren hamabosgarren xedapen gehigarrian jarritako baldintzekin bat etorriz, epe honetan: **HAMABOST (15) EGUN NATURALEKO** epean aipatutako iragarkia Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean agertzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.	La presentación de proposiciones se llevará a cabo **utilizando exclusivamente medios electrónicos**, de conformidad con los requisitos establecidos en la Disposición Adicional decimoquinta de la LCSP, durante el plazo de **QUINCE (15) DÍAS NATURALES**, contados a partir del siguiente a aquel en que aparezca el referido anuncio en el **Perfil del Contratante** del Ayuntamiento de Zarautz.
Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da.	En el supuesto de que el último día del plazo coincidiera en sábado, domingo o festivo, se trasladará al día siguiente hábil.
Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita aurkeztu beharko dira.	Las proposiciones deberán presentarse redactadas en cualquiera de los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du, ezingo du beste batzuekin aldi baterako enpresa-elkartea eratuta beste eskaintzarik aurkeztu, ezta aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan agertu ere.	Cada persona licitadora no podrá presentar más de una proposición. No se podrá presentar ninguna propuesta en unión temporal con otros si se ha efectuado individualmente, o figurar en más de una unión temporal.
Lizitatzaileek agiriei edo, egonez gero, dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria eskatzen badute, informazio hori eskaintzak jasotzeko jarritako epe-mugaren aurreko sei egunen barruan emango zaie, baldin eskaera hori eskaintzak jasotzeko aurrez adierazitako epea bukatu baino gutxienez zortzi egun lehenago egiten badute.	La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos ocho días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.
Proposamenak elektronikoki aurkezteko behar diren informazioa eta zehaztapen teknikoak (data zifratzea eta baliozkotzea barne), Euskadiko	La información y las especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de

Kontratazio Publikoaren Plataforman daude (www.contratación.euskadi.eus).		la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratación.euskadi.eus)
Bi fasetan bidali ahal izango dira eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez; lehenik eta behin, eskaintzen hatz-marka elektronikoa transmitituko da, eta, horren bidez, eskaintza ondorio guztietarako aurkeztu dela ulertuko da; eta, ondoren, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren bidalketa hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ulertuko da.		El envío por medios electrónicos de las ofertas podrá hacerse en dos fases, transmitiendo primero la huella electrónica de las ofertas, con cuya recepción se considerará efectuada su presentación a todos los efectos, y después la oferta propiamente dicha en un plazo máximo de 24 horas. De no efectuarse esta segunda remisión en el plazo indicado, se considerará que la oferta ha sido retirada.
Zer da eskaintzaren aztarna elektronikoa? Datu multzo bat. Bere sortze-prozesuak bermatzen du datuok argi eta garbi lotzen direla berezko eskaintzaren edukiarekin. Bestalde, aukera ematen du eskaintzaren edukian egindako aldaketak hautemateko, eta haren osotasuna bermatzen du. Espedienteari erantsi beharreko dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta bertan ezarritako ondorioak ordeztu beharko dituzte.		Se entiende por huella electrónica de la oferta el conjunto de datos cuyo proceso de generación garantiza que se relacionan de manera inequívoca con el contenido de la oferta propiamente dicha, y que permiten detectar posibles alteraciones del contenido de ésta, garantizando su integridad. Las copias electrónicas de los documentos que deban incorporarse al expediente, deberán cumplir con lo establecido a tal efecto en la legislación vigente en materia de procedimiento administrativo común, sustituyendo los efectos establecidos en la misma.
Aurkezpen elektronikoa egiteko: **AURKEZPEN ELEKTRONIKOA** Erabiltzaileen Arretarako Zentroa. 012 telefonoa, Euskal Autonomia Erkidegotik egindako deietarako. Gainerako deietarako, telefonoa: 945018000 Interneteko helbidea: www.euskadi.eus Helbide elektronikoa: laguntzakpe@euskadi.eus		Para la presentación electrónica: **PRESENTACIÓN ELECTRÓNICA** Centro de Atención a las personas usuarias. Teléfono 012 para las llamadas realizadas desde la Comunidad Autónoma de Euskadi. Para el resto de las llamadas, teléfono 945018000 Dirección de internet: www.euskadi.eus Dirección de correo electrónico: laguntzakpe@euskadi.eus
PROPOSAMENEN EDUKIA:		**CONTENIDO DE LAS PROPOSICIONES:**
Enpresa lizitatzaileek HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKO aurkeztu beharko dituzte (A, B eta C).		Las empresas licitadoras deberán presentar TRES ARCHIVOS ELECTRÓNICOS (A, B y C).
1.- "A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" deituko da, eta honako hauek jasoko ditu:		1.- ARCHIVO ELECTRÓNICO "A" se denominará "CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR" y contendrá:
-Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)		-El Documento Europeo Único de Contratación (DEUC)
EKAB formulario normalizatua eskuragarri dago era elektronikoan betetzeko web-orri honetan: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es		El formulario normalizado del DEUC está disponible para ser rellenado electrónicamente en la siguiente dirección web: https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es

*ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEAK Hainbat enpresa aldi baterako enpresa-ekarte gisa aurkezten badira lizitazio honetara, enpresa horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du, eta horietan jasota egongo da Europako Kontratazio Agiri Bakarraren formularioan kasu hauetarako eskatzen den informazioa. Aurreko paragrafoan aipatutako adierazpen horren edo horien osagarri gisa, aldi baterako elkartearen parte diren enpresen konpromiso bat aurkeztuko da. Hor adieraziko dute SPKLren 69. artikuluaren 3 atalean eskatutakoaren arabera egingo dela aldi baterako elkartea. **ATZERRIKO ENPRESAK SPKLren 67 eta 68 artikuluek aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dute atzerriko enpresek beren gaitasuna. Erantzukizunpeko adierazpenaz gain, atzerriko enpresek kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazten duen agiria aurkeztuko dute, eta uko egingo diotela, hala behar badute, enpresa lizitatzaileei legokiekeen atzerriko jurisdikzio foruari. 2.- "B" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk azpititulu hau izango du: "ESKAINTZA TEKNIKOA". Hona hemen aurkeztu beharreko agiriak: Plegu hauetako 11.2. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideak betetzen direla egiaztatzeko agiriak. Plegu hauetan adierazitako adjudikazio irizpideen arabera, eskaintzaren puntuak baloratzeko beharrezko iruditzen zaion dokumentazio guztia sartuko du lizitatzaileak. Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko ez proposamen ekonomikoa ez eta automatikoki kuantifikatu daitezkeen adjudikazio-irizpideei buruzko beste daturik ere; horiek guztiak "C" artxiboan sartuko dira. Datu horietako edozein "B" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki		*UTE En el supuesto en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación. Adicionalmente a la declaración o declaraciones a que se refiere el párrafo anterior se aportará el compromiso de constituir la unión temporal por parte de los empresarios que sean parte de la misma de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 de la LCSP. **EMPRESAS EXTRANJERAS Las empresas extranjeras deberán acreditar su capacidad en la forma prevista en los artículos 67 y 68 de la LCSP. Además de la declaración responsable, deberán aportar una declaración de sometimiento a la jurisdicción de los juzgados o tribunales españoles de cualquier orden, para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional extranjero que pudiera corresponder a la empresa licitante. 2.- ARCHIVO ELECTRÓNICO "B" se denominará "OFERTA TÉCNICA" y contendrá los siguientes documentos: Documentos que acrediten el cumplimiento de los criterios de adjudicación, señalados en el apartado 11.2. de este pliego Se incluirá toda la documentación que la empresa licitadora considere necesaria para valorar los distintos aspectos de la oferta según los criterios de adjudicación citados en este pliego. En ningún caso deben incluirse el presente archivo en la proposición económica o cualesquiera otros datos correspondientes a criterios de adjudicación cuantificables de forma automática y que deben incluirse en el archivo "C". La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo "B" supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se les asignarán

kuantifikatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.	los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación no cuantificables de forma automática
3.- "C" ARTXIBO ELEKTRONIKOAk azpititulu hau izango du: "PROPOSAMEN EKONOMIKOA". Hona hemen "C" artxiboan aurkeztu beharreko agiriak:	3.- ARCHIVO ELECTRÓNICO "C" se subtitulará "PROPOSICIÓN ECONÓMICA" y contendrá los siguientes documentos:
Kopuruetan edo portzentajeetan baloratzekoa den irizpideari buruzko eskaintza ekonomikoa sartuko da, hain zuzen, plegu honetako 11.1. atalean adierazitakoa. Plegu hauen II eranskineko ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa aurkeztuko da.	Se incluirá la proposición relativa al criterio valorable en cifras o porcentajes al que se refieren el apartado 11.1. de este pliego. La proposición se ajustará al modelo establecido en el anexo II del presente Pliego.
Artxibo horretan ez da inondik ere sartuko balio-iritzi baten bidez baloratzekoak diren adjudikazio-irizpideei buruzko daturik (formula bidez ebaluatzeko ez dena); horiek guztiak "B" artxiboan sartuko dira.	En ningún caso deben incluirse en el presente archivo datos correspondientes a criterios de adjudicación cuya valoración dependa de un juicio de valor (no evaluable mediante fórmula) y que deberán incluirse en el archivo"B".
Datu horietako edozein "C" artxiboan sartuz gero, agiri horiek ez dira baloratuko. Horrenbestez, automatikoki kuantifikatzekoak diren adjudikazio-irizpideei dagozkien puntuak soilik emango zaizkie.	La inclusión de cualquiera de dichos datos en el archivo "C" supondrá la no valoración de dichos documentos, por lo que solamente se les asignarán los puntos correspondientes a los criterios de adjudicación cuantificables de forma automática.
13. AGIRIAK SAILKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA	**13. CALIFICACIÓN DE DOCUMENTOS Y APERTURA DE PROPOSICIONES**
2016ko irailaren 29an egindako bilkuran Udalbatzarrak besteak beste erabaki zuen Zarauzko Udaleko kontratazio-mahai Iraunkorra eratzea. Mahaiaren osaera eta funtzionamendu-arauak ere finkatu zituen. 2018ko maiatzaren 31n egindako bilkuran, berriz, Udalbatzarrak, osaera aldatzea erabaki zuen.	El Pleno de la Corporación en sesión celebrada el 29 de septiembre de 2016 acordó entre otros la constitución de la Mesa de Contratación Permanente del Ayuntamiento de Zarautz, así como su composición y normas de funcionamiento. Asimismo, el Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 31 de mayo de 2018, acordó modificar su composición.
Proposamenak aurkezteko epea amaitu ondoren, kontratazio-mahaia bilduko da, eta epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa sailkatuko du ("A" artxiboa). Hori egiteko Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko 81. artikulua eta hurrengoak jarraituko dira.	Vencido el plazo de presentación de proposiciones, se procederá a clasificar la documentación recibida en tiempo y forma (archivo "A"), procediendo, para ello, como se señala en los artículos 81 y siguientes del Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas.
Aurkeztutako dokumentazioa sailkatu ondoren eta, horrelakorik balego, ikusitako akats edo hutsuneak zuzendu eta gero, mahaiak zehaztu egingo du nortzuk izan diren lizitazioan	Una vez calificada la documentación presentada, y subsanados, en su caso, los defectos u omisiones observados, se procederá al pronunciamiento expreso sobre los admitidos a la licitación, los

onartuak, baztertuak eta bazterketaren arrazoiak.	rechazados y sobre las causas de su rechazo.
Jendaurrekoa ez den egintza horretan, onartutako enpresen "B" artxiboa irekiko da (formula bidez ebaluatzekoak ez diren irizpideak), eta artxiboan sartutako agirien zerrenda irakurriko da. Ondoren, egintza bukatutzat emango da.	En el acto no público se procederá a la apertura del archivo "B" (Criterios no cuantificables por fórmula) de las empresas licitadoras admitidas, dando lectura a la relación de los documentos aportados. A continuación, se dará por concluido el acto celebrado.
Jarraian, "B" artxiboko edukia Zarauzko Udaleko teknikariei bidaliko zaie, formula bidez ebaluatzekoak ez diren adjudikazio-irizpideei buruzko txostena egin dezaten. Hori bai, txosten horrez gain, beste txosten tekniko batzuk ere eskatu ahal izango dira, ebazpen-proposamena egiteko beharrezkoak direla uste izanez gero.	Posteriormente se remitirá el contenido de los archivos "B" para que personal técnico municipal, emita informe en relación a los criterios de adjudicación no evaluables mediante fórmula, sin perjuicio de poder solicitar cuantos informes técnicos se estimen necesarios a los efectos de formular su propuesta de resolución.
Eskatutako txostenak jaso ondoren Kontratazio-mahaia elkartuko da, jendaurrekoa ez den egintzan, eta txostenak baloratu eta enpresa lizitatzaile bakoitzari emango zaion puntuazioa erabakiko du.	Recibidos los informes solicitados se constituirá la Mesa de Contratación, en acto no público, y valorará los informes y decidirá sobre la puntuación a asignar a cada empresa licitadora.
Kontratazio-mahaiak, jendaurreko egintzan elkartuta, enpresa bakoitzak lortutako puntuazioaren emaitza jakinaraziko du. Horrez gain, eskaintza onartuak, baztertuak eta bazterketaren kausa edo arrazoiak zeintzuk izan diren ere adieraziko du. Hori egin ondoren, "C" artxiboak ireki (formula bidez ebaluatzeko irizpideak), eta barruan sartuta dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.	La Mesa de Contratación, reunida en acto público, comunicará el resultado de la puntuación obtenida por cada empresa licitadora, e informará sobre las proposiciones admitidas, de las rechazadas y causa o causas de inadmisión, procediéndose a continuación a la apertura del archivo "C" (Criterios cuantificables por fórmulas) y a la lectura de las ofertas económicas contenidas en las mismas.
"C" artxiboa irekitzeko jendaurreko egintza Zarauzko Udaleko kontratatzailearen profilean adierazitako toki eta egunean izango da.	El acto público de apertura de los archivos "C" se celebrará en el lugar y fechas indicados en el perfil de contratante del Ayuntamiento de Zarautz.
Kontratazio-mahaiari beharrezko iruditzen bazaio, "C" artxiboak udal teknikariei bidaltzea erabaki dezake, haiek azter ditzaten eta formula aritmetikoen bitartez ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko txostena egin dezaten.	Si la Mesa de Contratación lo considera necesario acordará la remisión de los archivos "C" para que sean analizados por los técnicos municipales y emitan informe respecto de los criterios evaluables mediante fórmulas aritméticas.
Gero, Kontratazio-mahaiak kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio Alkatetzari.	La Mesa de Contratación elevará la propuesta de adjudicación del contrato a Alcaldía.
14. BERDINKETA	**14. EMPATE**
Ezarritako balorazio-irizpide guztiak haztatu ondoren berdinketa gertatzen bada bi eskaintzari edo gehiagori emandako puntuazioan, SPKLaren 147.2 artikuluan aurreikusitako irizpideak erabiliko dira berdintasun hori ebazteko.	Cuando tras efectuar la ponderación de todos los criterios de valoración establecidos se produzca un empate en la puntuación otorgada a dos o más ofertas, se utilizarán los criterios previstos en el artículo 147.2 de la LCSP para resolver dicha

		igualdad.
Lizitatzaileek berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute, eta ez lehenago, klausula honetan aipatutako berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa.		La documentación acreditativa de los criterios de desempate a que se refiere la presente clausula será aportado por quienes liciten en el momento en el produzca empate, y no con carácter previo.
.		
15. KONTRATUA ADJUDIKATZEA		**15. ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO**
Eskaintzak ireki eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, gehienez ere, bi hilabeteko epean egingo da kontratuaren adjudikazioa. Epe hori igaro eta oraindik adjudikaziorik egin ez bada, lizitatzaileek eskaintzak erretiratu ahalko dituzte.		La adjudicación del contrato deberá dictarse en el plazo máximo de dos meses a contar desde la apertura de las proposiciones. Transcurrido este plazo sin haberse producido la adjudicación, quienes liciten podrán retirar sus ofertas
Dena den, adjudikazioa nahitaez egin behar da, baldin eta aurkeztutako eskaintzaren batek administrazio-klausulen agirian eskatutako baldintzak betetzen baditu. Kasu horretan lizitazioa ezingo da hutsik laga.		La adjudicación deberá dictarse en todo caso, siempre que alguna de las ofertas presentadas reúna los requisitos exigidos en el Pliego de cláusulas, no pudiendo en tal caso declararse desierta la licitación.
Edonola ere, SPKLaren 152 artikuluan xedatutakoari jarraiki, kontratazio-organoak, adjudikazioa egin baino lehen, kontratua ez egitea erabaki dezake, herri-onurako arrazoiak direla-eta; edota tramitatutako prozeduran atzera egin dezake, prozedurak akats konponezinak baditu.		No obstante, en los términos previstos en el artículo 152 de la LCSP, el Órgano de Contratación, antes de dictar la adjudicación, podrá renunciar a celebrar el contrato por razones de interés público, o desistir del procedimiento tramitado, cuando éste adolezca de defectos no subsanables.
Kontratuaren adjudikazioak beti arrazoitua izan behar du, eta parte hartu dutenei jakinaraziko zaie. Aldi berean, kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.		La adjudicación del contrato, que en todo caso deberá ser motivada, se notificará quienes hayan licitado y, simultáneamente, se publicará en el perfil del contratante del órgano de contratación.
Kontratazio-mahaiak egindako proposamena ikusita, eskaintza ekonomiko onena egiten duen enpresa lizitatzaileari eskatuko zaio ondorengo zirkunstantziei buruzko frogagiriak aurkez ditzala, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita zazpi egun balioduneko epean:		A la vista de la propuesta de la Mesa de Contratación, se requerirá a la empresa licitadora que haya presentado la mejor oferta para que, dentro del plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente a aquél en que hubiera recibido el requerimiento, presente la documentación acreditativa de las siguientes circunstancias:
a) Lizitatzaileak bere izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala. Beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu: nortasun-agiri nazionala eta notario-ahalorde askietsia.		a)Documento Nacional de Identidad si la empresa licitadora actúa en nombre propio. En el caso de que se actúe en representación de otra persona o entidad, Documento Nacional de Identidad, así como poder bastanteado.
b)Lizitatzailea pertsona juridikoa izanez gero, eratze edo aldaketa eskritura aurkeztuko du, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, baldin inskripzioa derrigorrezkoa bada, aplikatu behar zaion merkataritzako legediaren arabera.		b)Cuando el/la licitador/ra sea una persona jurídica, escritura de constitución o modificación, en su caso, debidamente inscrita en el Registro Mercantil y número de identificación fiscal, cuando la inscripción fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo

Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lizitatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide edo merkataritza erregistro bateko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo bestela, zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenekin bat etorriz.		fuere, la acreditación de la capacidad de obrar se realizará mediante la escritura o documento de constitución, estatutos o acto fundacional, en el que constaren las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial. Cuando se trate de empresarios/as no españolas de Estados miembros de la Unión Europea, deberán acreditar su inscripción en el registro procedente de acuerdo con la legislación del Estado donde estén establecidos o mediante la presentación de una declaración jurada o un certificado, de acuerdo con las disposiciones comunitarias de aplicación.
c)Indarrean dauden xedapenek agindu bezala, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak kitatuta daudela egiaztatzen duten agiriak.		c)Certificaciones acreditativas de hallarse al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.
d)Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda dagoela egiaztatzea, hain zuzen ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Horretarako alta aurkeztuko da, baldin aurtengo ekitaldiari badagokio, edo JEZen azken ordainagiria gainerako kasuetan. Bi kasuetan erantzukizunpeko aitorpena ere aurkeztuko da, adierazteko zerga horren matrikulan ez duela bajarik hartu.		d)Acreditación de estar dado de alta en el I.A.E., en el epígrafe que corresponda al objeto del contrato, mediante la presentación del alta, si se refiere al ejercicio corriente, o del último recibo del I.A.E, en los demás casos, acompañada en ambos supuestos de una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del referido impuesto.
e)Enpresa lizitatzaileak kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala duela ziurtatu beharko du:		e)Justificantes de la solvencia económica, financiera y técnica o profesional de la empresa:
<u>e.1) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa:</u> Negozioen urteko bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldietatik onenekoak (eraketa-data edo enpresariaren jardueren hasiera-data kontuan hartuta) eta 50.000,00 euro edo gehiagoko eskaintzak. Enpresa Erregistroan inskribatuta badago, lizitatzailearen edo izangaiaren negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez egiaztatuko da (onartutako edo Merkataritza Erregistroan jasotako kontuak), eta, bestela, berez inskribatuta egon behar duen Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez. Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute urteko negozioen bolumena.		<u>e.1) Solvencia económica y financiera:</u> Volumen anual de negocios, referido al mejor ejercicio dentro de los tres últimos disponibles en función de las fechas de constitución o de inicio de actividades del empresario y de presentación de las ofertas por importe igual o superior a 50.000,00 euros. El volumen anual de negocios de la empresa licitadora o candidata se acreditará por medio de sus cuentas anuales aprobadas y depositadas en el Registro Mercantil, si la empresa estuviera inscrita en dicho Registro, y en caso contrario por las depositadas en el Registro Oficial en que deba estar inscrito. Las personas empresarias individuales no inscritas en el Registro Mercantil acreditarán su volumen anual de negocios mediante sus libros de inventarios y cuentas anuales legalizados por el Registro Mercantil.

e.2.) Kaudimen teknikoa:		e.2.)Solvencia técnica:
Gutxienez, azken hiru urteetan kontratuaren xedearekin lotutako 50.000 euroko edo gehiagoko zerbitzu bat egin izana egiaztatu beharko da.		Será requisito mínimo a acreditar haber realizado en los último tres años al menos un servicio relacionado con el objeto del contrato, de igual o mayor importe a 50.000 euros
f) Enpresa lizitatzaileak enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa duela egiaztatzen duten agiriak. Era berean, dagokion enplegu-zentro berezien erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu		f)Documentos acreditativos de que la empresa licitadora posee la calificación de Centro Especial de Empleo. Asimismo, deberá aportar certificaciones actualizadas de hallarse inscrita en el Registro de Centros Especiales de Empleo correspondiente.
g)Administrazio baldintzen agiriko 19. atalean adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzea.		g)Acreditar el cumplimiento de los requisitos indicados en la cláusula 19 del presente pliego.
h)150.000 euroko estaldurako Erantzukizun Zibileko aseguru-poliza kontratatuta izatearen egiaztagiria, polizaren eta dagokion ordainagiriaren bidez.		h)Acreditación de tener contratada una póliza de seguro de Responsabilidad Civil por importe de 150.000 euros de cobertura, mediante póliza y recibo correspondiente.
Oharra: a), b) eta e1) letretan adierazitako zirkunstantziak honela egiaztatu ahal izango dira: Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Estatuko Erregistro Ofizialeko ziurtagiri bidez; edo Europako erkidegoko sailkapeneko ziurtagiri bidez, SPKLak 97. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, ziurtagiriarekin batera lizitatzailearen zinpeko aitorpena aurkeztu beharko da, azaltzen duena ziurtagiri horretan adierazitako zirkunstantziek ez dutela inolako aldaketarik izan.		*Las circunstancias señaladas en las anteriores letras a), b) y e1) podrán acreditarse mediante una certificación del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas de la Comunidad Autónoma Vasca, del Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Estado o mediante un certificado comunitario de clasificación conforme a lo establecido en el art. 97 de la LCSP En este caso, deberá acompañarse a la referida certificación una declaración responsable del licitador/ra en la que manifieste que las circunstancias reflejadas en el correspondiente certificado no han experimentado variación.*
SPKLren 139.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, proposamena egiteak baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean jasotako datuak kontsultatzeko.		De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 139.1. de la LCSP, la presentación de la proposición supone autorización a la Mesa y al Órgano de Contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público del Estado o de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
Aurreko hamar eguneko epea bukatu eta hurrengo bost egun baliodunetan egingo da adjudikazioa, betiere lizitatzaileak adierazi zaizkion dokumentuak aurkeztu baditu eta behin betiko bermea jarri badu.		La adjudicación se realizará dentro de los cinco días hábiles siguientes a aquél en que expire el plazo de diez días anterior, siempre que la empresa licitadora haya presentado la documentación señalada y constituido la garantía definitiva.
Eskakizun horiek zehaztutako epean ez betetzeagatik adjudikazioa egiten ez bada, beste deialdi bat egin aurretik, Administrazioak aukera izango du hurrengo lizitatzaileari edo		Cuando no proceda la adjudicación por no cumplir éste adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, antes de proceder a una nueva convocatoria la Administración podrá efectuar

lizitatzaileei adjudikatzeko, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, betiere hala egitea posible bada eta enpresa adjudikaziodun berria ados badago. Egoera horretan, hamar egun balioduneko epea irekiko da aipatu berri den guztia burutzeko.	una nueva adjudicación al licitador o licitadores siguientes a aquél, por el orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas, siempre que ello fuese posible y que la nueva empresa adjudicataria haya prestado su conformidad, en cuyo caso se concederá a éste un plazo de diez días hábiles para cumplimentar lo señalado anteriormente.
SPKLak 152.2 artikuluan aurreikusten duenari jarraituz, kontratua egiten ez bada, edota adjudikazioaren aurretik kontratazio-organoak erabakitako prozedura honi uko egiten bazaio, Administrazioak zehaztuko du lizitatzaileei eragindako gastuaren zenbatekoa, aurretik haiekin egon eta justifikazioak entzun ondoren.	Al amparo de lo previsto en el art. 152.2 de la LCSP, en caso de renuncia a la celebración del contrato o desistimiento de este procedimiento acordado por el órgano de contratación antes de la adjudicación, la compensación de los gastos que la licitación haya ocasionado a quienes hayan licitado será fijada por esta Administración previa audiencia y justificación de aquellos.
Aurkeztutako eskaintzak —bai onartutakoak bai ireki gabe baztertutakoak edo ireki ondoren atzera botatakoak— bere espedientean artxibatuko dira. Kontratua adjudikatu ondoren errekurtsoak jartzeko epea irekiko da. Epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, proposamenarekin batera aurkeztutako dokumentazioa interesdunen eskura utziko da.	Las proposiciones presentadas, tanto las declaradas admitidas como las rechazadas sin abrir o las desestimadas una vez abiertas, serán archivadas en su expediente. Adjudicado el contrato y transcurridos los plazos para la interposición de recursos sin que se hayan interpuesto, la documentación que acompaña a las proposiciones quedará a disposición de los y las interesadas.
Dokumentazio hori interesdunen eskura jartzen denetik hilabeteko epean (1 hilabete) inork jasotzen ez badu, administrazioak erabaki dezake pertsona edo enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea.	Transcurrido el plazo de 1 mes desde que dicha documentación quede a disposición de los y las interesadas, la Administración podrá disponer sobre la destrucción de la documentación aportada por las personas o empresas licitadoras cuando éstas no hayan procedido a su retirada.
Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.	El contrato se formalizará en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, debiendo comparecer en el Ayuntamiento para ello.
Administrazioaren erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, atzerapenak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio enpresa adjudikaziodunari	En el caso de falta de formalización del contrato por causas imputables a la Administración, se indemnizará a la empresa adjudicataria de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.
16. KONTRATUA FORMALIZATZEA	**16. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO**
Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatu behar da kontratua, SPKLak 153 artikuluan xedatu bezala; horretarako Udalaren aurrean aurkeztu behar da.	El contrato se formalizará conforme a lo previsto en el artículo 153 de la LCSP en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, debiendo comparecer en el Ayuntamiento para ello.

III. KONTRATUA GAUZATZEA		III. EJECUCIÓN DEL CONTRATO
17. KONTRATUAREN ARDURADUNA		**17. RESPONSABLE DEL CONTRATO**
Zarauzko Udaleko Idazkari Nagusia Departamentuko arduraduna izango da kontratu hau gauzatzearen arduraduna, SPKLren 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.		En el presente contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 62 de la LCSP se designa como responsable de la ejecución del contrato a la Secretaria del Ayuntamiento de Zarautz.
18. KONTRATUA GAUZATZEA		**18. EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Enpresa adjudikaziodunaren gain eta kontura beteko da kontratua, SPKLaren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.		La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura de la empresa adjudicataria, con arreglo al artículo 197 de la LCSP.
Kontratua gauzatzeko, plegu honetan jasotako klausulak eta espedienteari erantsitako zehaztapen teknikoak jarraituko dira, eta betiere, Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolpean. Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.		El contrato se ejecutará con sujeción a las cláusulas contenidas en el presente pliego y a las especificaciones técnicas unidas al expediente, bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente.
Enpresa adjudikaziodunari edo bere mendeko pertsonei leporatu ahal zaizkien ekintzengatik edo omisioengatik kontratuaren martxa ona arriskuan jartzen denean, Administrazioak kontratuaren martxa ona lortzeko edo berreskuratzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea agindu dezake.		Cuando por actos u omisiones imputables a la empresa adjudicataria o a personas de ella dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.
Kontratista berari egoztekoak diren arrazoiak direla-eta, epea bere osotasunean betetzerakoan berandutzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo SPKLren 192 eta 193. artikuluek aurreikustako zigorrak jartzea.		Cuando la empresa contratista, por causas imputables al mismo, hubiera incurrido en demora respecto al cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de las penalidades previstas en los artículos 192 y 193 de la LCSP.
Kontratuaren xede den prestazioa gaizki betetzen den kasuetan, kontratazio-organoak zigorrak jarri ahal izango ditu, larritasunaren proportzioan: kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 1etik % 10era bitartean.		En el caso de cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato, el órgano de contratación podrá imponer penalidades, en proporción a la gravedad, por importe entre 1% y el 10% del precio de adjudicación del contrato.
19. KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK		**19. CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN**
19.1. Hizkuntza arloan. Eskubideak eta betebeharrak euskararen erabileran.		**19.1. Materia lingüística. Derechos y obligaciones en el uso del euskera**
Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza		Este contrato se halla sujeto al régimen de doble

ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, besteak beste, Zarauzko Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko araudia ematen duen Udal Ordenantza.

1. Langileen hizkuntza gaitasuna: Herritarrekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, telefono kudeatzaileek Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila (EGA edo baliokidea) egiaztatu beharko dute.

Kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
- Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

2. Herritarrekiko harremana:
Herritar eta zerbitzu erabiltzaileei harrera egin eta erantzuteko, udalak bete behar dituen hizkuntza baldintza berak bete beharko dira. Eta, horregatik,

- Herritarrei lehen hitza euskaraz egingo zaie, eta hortik aurrera, beraiek aukeratutako hizkuntza ofizialean hitz egingo zaie.

oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6° y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros, la Ordenanza Municipal sobre las normas para la normalización del uso del euskara en el Ayuntamiento y municipio de Zarautz.

1.- Competencia lingüística: En sus relaciones con la administración o terceros, las personas empleadas por la empresa contratada deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante. Por ello, teniendo en cuenta la naturaleza del servicio a contratar, las personas teleoperadoras deberán acreditar el nivel de competencia C1 del Marco Europeo de Referencia (EGA o su equivalente).

Previo a la adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de la prestación del servicio poseen la competencia lingüística precisa. Asimismo, las nuevas incorporaciones al servicio de personal posteriores a la contratación de la empresa, también deberán acreditar la capacidad lingüística exigida.

La acreditación de la competencia lingüística podrá hacerse de la siguiente manera:

- A través de la presentación de documentos que acrediten que las personas que prestarán el servicio cumplen la competencia lingüística exigida.
- A través de pruebas específicas realizadas por la administración (la acreditación que se obtenga en dichas pruebas carecerá de valor fuera de esta adjudicación).

2.-Relación con la ciudadanía:
A la hora de atender a la ciudadanía y a las personas usuarias de servicios, se deberá cumplir con las condiciones lingüísticas que son de obligado cumplimiento para el Ayuntamiento. Y, por ello,

- El primer saludo siempre se realizará en euskera, y se continuará en la lengua oficial que la persona usuaria elija.

3. Udalarekiko harremana: Kontratuak eragindako harremanak, ahozkoak (koordinazio bilerak etab.) zein idatzizkoak (memoriak, txostenak, fakturak etab.) euskaraz izango dira administrazio kontratatzailearekin. 4.- Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 211.f) artikuluaren arabera. 5.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62 eta 210. artikuluen arabera, kontratuaren arduradunak ikuskatuko du ea kontratuko hizkuntza-baldintzak betetzen diren, segimendua egingo du, eta horretarako behar diren erabakiak hartuko ditu. Ikuskapena ez da bukaeran bakarrik egingo; aitzitik, jarraitua izango da. **19.2. Enpresa adjudikaziodunaren lan eskubideak eta betebeharrak** 1. Kontratuak derrigorrez bete beharko ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden eta aplikagarri diren legezko, arauzko eta hitzarmenezko xedapenak. Kontratua indarrean den bitartean, kontratuaren hasierako plantillan aldaketak gertatzen badira (bai erretiro, heriotza, borondatezko baja, kaleratze, aldi baterako ezintasun, ezintasun iraunkor eta abarrengatik, bai zerbitzuaren beharrengatik), baja hori bete aurretik adjudikaziodunak Udalari horren berri emango dio. Adjudikaziodunaren ardura osoa izango da bere zerbitzuan izango dituen langileen kontratazioa eta horien prestakuntza. Zarauzko Udalak ez du inongo harreman juridikorik izango adjudikaziodunarentzat lanean diharduten langileekin, ez agiri hauen xede den kontratua indarrean den bitartean ez kontratua bukatu ondoren ere. 2. Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei zein hitzarmen kolektibo aplikatu zaien adierazi beharko dute lizitatzaileek, adjudikazioa lortzen badute.	**3.- Relación con el Ayuntamiento:** En todas aquellas relaciones verbales (reuniones de coordinación etc.) o escritas (memorias, informes, facturas etc.), que se mantengan con la administración contratante en relación con este contrato, se utilizará el euskera. 4.- Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley. 5.- De conformidad con el artículo 62 y 210 de la LCSP, la persona responsable del contrato inspeccionará el cumplimiento condiciones lingüísticas del contrato, hará seguimiento, adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias a tal fin. La inspección se realizará no solo a su finalización sino de modo continuado **19.2. Derechos y obligaciones laborales de la empresa adjudicataria** 1. El presente contrato se halla sujeto al cumplimiento de las disposiciones legales, reglamentarais y convencionales vigentes y que resulten de aplicación en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad y salud en el trabajo. Durante la vigencia del contrato y siempre que se produzca una variación en la plantilla con que se inicia el mismo, bien sea por jubilación, defunción, baja voluntaria, despido, invalidez, etc. o cualquier otra que se produzca por necesidades del servicio la empresa adjudicataria está obligada a dar cuenta al Ayuntamiento previamente a cubrir la baja causada. Será de cuenta y cargo de la empresa adjudicataria exclusivamente la contratación del personal a su servicio y su formación. El Ayuntamiento de Zarautz no tendrá relación jurídica alguna con el personal al servicio de la adjudicataria durante el plazo de vigencia del contrato objeto de este pliego ni al término del mismo. 2. Quienes liciten deberán indicar el convenio colectivo que será de aplicación a las personas trabajadoras que realicen la actividad objeto del contrato, en el caso de resultar adjudicatarios.

Halaber, behin kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia ematera behartuta egongo dira.		Asimismo, estarán obligados a facilitar cuanta información se requiera sobre las condiciones de trabajo que, una vez adjudicado el contrato, se apliquen efectivamente a las personas trabajadoras.
3. Hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du enpresa adjudikaziodunak kontratua gauzatzen den denbora guztian, beti ere langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta ordaintzekoa den soldata ezin izango da, inola ere, txikiagoa izan.		3. La empresa adjudicataria deberá a lo largo de toda la ejecución del contrato, abonar el salario recogido en el convenio colectivo de aplicación según la categoría profesional que le corresponda a la persona trabajadora, sin que en ningún caso el salario a abonar pueda ser inferior a aquel
4. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, SPKLren ondorioetarako. Hortaz, baldintzak betetzen ez badira, kontratua bertan behera gelditu ahal izango da, lege horren 221.f) artikuluaren arabera.		4. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
19.3. Berdintasuna. Emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko eskubide eta betebeharrak		**19.3. Igualdad. Derechos y obligaciones para garantizar la igualdad de mujeres y hombres**
1.- Enpresa adjudikaziodunak nahitaez beteko ditu honako hauek: 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa; 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa; eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantza.		1. La empresa adjudicataria deberá cumplir los principios establecidos en la Ley Orgánica 3/2007 para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad de Mujeres y Hombres.
2.- Enpresa adjudikaziodunak komunikazio ez-sexista eta inklusiboa egingo du bere dokumentazioan, publizitatean, irudietan eta materialetan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Ordenantzaren 26. artikulua).		2. La empresa adjudicataria hará un uso de la comunicación de manera no sexista e inclusiva en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales (artículo 26 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad de Mujeres y Hombres).
3.- Beste neurri batzuk hartzeari utzi gabe eta berdintasun arloan indarrean dagoen legeriari jarraiki, kontratuaren adjudikaziodun gisa izendatutako pertsona juridikoak, bere estatus juridikoa edozein izanda ere, derrigorrez bermatu beharko du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta arreta berezia jarriko du soldata-diskriminazioan (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zarauzko Udal Ordenantzaren 36 artikulua eta Kontratuen Legearen 1.3 artikulua).		3. Sin perjuicio de otras medidas y en virtud de la legislación vigente en materia de igualdad, la persona jurídica designada como adjudicataria del contrato, independientemente de su estatus jurídico, deberá garantizar obligatoriamente la igualdad entre mujeres y hombres, prestando especial atención a la discriminación salarial (artículo 36 de la Ordenanza Municipal de Zarautz para la Igualdad de Mujeres y Hombres y artículo 1.3. de la LCSP).
4. Zerbitzua garatu behar duen talde lizitatzaileko pertsona guztiek emakumeekiko eta gizonekiko errespetuzko eta berdintasunezko tratua edukiko		4. Todas las personas de la empresa que vayan a desarrollar el servicio, deberán mantener en todo momento una actitud respetuosa e igualitaria

dute une oro, eta ez dute jarrera gogaikarri, iraingarri edo diskriminatzailerik hartuko sexu, ideologia, jatorri etniko, nazionalitate edo orientazio sexualagatik.	hacia mujeres y hombres, y no adoptarán ninguna actitud que pueda ser molesta, ofensiva o discriminatoria tanto por razón de sexo, ideología, origen étnico, nacionalidad u orientación sexual.
5.Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako 3/2007 Lege Organikoaren eta Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu-eta aukera-berdintasuna bermatzeko presako neurrien martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretuaren arabera: - Enpresak 100 langile baino gehiago baldin baditu, Berdintasun Plana aurkeztu beharko du.	5. De conformidad con la Ley Orgánica 3/2007 para la igualdad efectiva de mujeres y hombres y el Real Decreto-ley 6/2019 de 1 de marzo, de medidas urgentes para garantía de la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres en el empleo y la ocupación: - Si la empresa tiene más de 100 personas empleadas, deberá presentar el Plan de Igualdad de la empresa.
Urriaren 13ko 901/2020 Errege Dekretuaren arabera (berdintasun-planak eta haien erregistroa arautzen dituena eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena), berdintasun plana egin beharra dakarren pertsona-kopurua kalkulatzeko, enpresaren plantilla osoa hartuko da kontuan, edozein izanda ere haren lan-zentroak eta edozein izanda ere lan-kontratazioaren modalitatea; alegia, pertsona hauek ere kontuan hartuko dira: bai aldizkako lan-kontratu finkoak dituzten pertsonak, bai iraupen jakineko kontratuak dituzten pertsonak eta bai langileak lagatzeko kontratuak dituzten pertsonak.	De conformidad con el Real Decreto 901/2020, de 13 de octubre, por el que se regulan los planes de igualdad y su registro y se modifica el Real Decreto 713/2010, de 28 de mayo, sobre registro y depósito de convenios y acuerdos colectivos de trabajo, para el cálculo del número de personas que dan lugar a la obligación de elaborar un plan de igualdad, se tendrá en cuenta la plantilla total de la empresa, cualquiera que sea el número de centros de trabajo de aquella y cualquiera que sea la forma de contratación laboral, incluidas las personas con contratos fijos discontinuos, con contratos de duración determinada y personas con contratos de puesta a disposición.
6. Klausula honetako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira, Kontratuen Legearen ondorioetarako. Hortaz, baldintzok betetzen ez badira, kontratua bukatu daiteke, lege horren 211.f) artikuluaren arabera.	6. Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la LCSP, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 211. f) de la citada ley.
20. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE	**20. RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA POR DAÑOS DURANTE LA EJECUCIÓN DEL CONTRATO**
Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko ditu kontratua betetzeak dakartzan lanen ondorioz hirugarrengoei egindako kalteak eta galerak, SPKLak 196 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Horren ondorioetarako, 150.000 euroko aseguru-poliza bat izenpetu beharko du.	La empresa adjudicataria será responsable de los daños y perjuicios que se causen como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 196 de la LCSP, a cuyo efecto deberá suscribir una póliza de seguro por importe de 150.000 euros.
Estaldura horrek indarrean jarraitu beharko du kontratuak irauten duen denbora osoan eta,	Dicha cobertura deberá mantener su vigencia en todo el período de duración del contrato, y en su

halakorik balego, luzapenetan.	caso, en las prórrogas correspondientes.
21. KONTRATUA ALDATZEA	**21. MODIFICACIONES DEL CONTRATO**
Behin kontratua burutzen denean, interes publikoak eragindako aldaketak bakarrik sartu ahalko dira, klausula honetan ezarritako kasuetan edo SPKLaren 205. artikuluan jarritako kasuetan eta mugekin.	Una vez perfeccionado el contrato, solo se podrán introducir modificaciones por razones de interés público, en los casos previstos en esta cláusula o en los supuestos y con los límites establecidos en art. 205 de la LCSP.
Kontratuan aldaketak sartu behar direnean, proposamena idatziko dute dagokion departamentuak eta kontratuaren arduradunak, aldaketa arrazoitzen, deskribatzen eta baloratzen duten agiriekin batera. Administrazioak enpresa kontratistari entzunaldia emango dio, aldaketa onartu aurretik. Kontratazio-organoak onartu beharko ditu aldaketok; baina, aurretik, SPKLren 191 eta 207 artikuluetan aurreikusitako prozedura tramitatuko da eta dokumentu administratiboa formalizatuko da, lege bereko 153. artikuluan xedatutakoaren arabera, behin betiko bermea berregokituta, hala behar bada.	Cuando sea necesario introducir modificaciones en el contrato el departamento correspondiente junto con el responsable del contrato redactará la oportuna propuesta, integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquella. La aprobación de la modificación por la Administración requerirá la previa audiencia de la empresa contratista. Las modificaciones deberán ser aprobadas por el órgano de contratación previa tramitación del procedimiento previsto en el art. 191 y 207 de la LCSP y formalizarse en documento administrativo con arreglo a lo señalado en el art. 153 de la LCSP, previo reajuste de la garantía definitiva en su caso.
22. KONTRATUA BUKATZEKO ARRAZOIAK	**22. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO**
Kontratua bukatzeko arrazoiak izango dira: SPKLren 211 artikuluan aurreikusitakoak, bai eta lege bereko 313 artikuluan bereziki zerbitzu-kontratuetarako jasotakoak, eta 294 artikuluko c), d) eta f) letretan aurreikusitakoak.	Constituyen causas de resolución del contrato las establecidas en los artículos 211 de la LCSP, así como las recogidas en el artículo 313 de la misma Ley para los contratos de servicios en particular.
Kontratua bukatzeko berariazko arrazoia izango da administrazioarekin kontratatzeko betekizunak bat-batean galtzea (kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena galtzea eta kontratatzeko debekuren bat izatea), SPKLan jartzen duen moduan.	Se establece como causa expresa de resolución del contrato la pérdida sobrevenida de los requisitos para contratar con la administración (exigencias de capacidad de la empresa contratista y no estar incurso en ninguna causa de prohibición de contratar) en los términos establecidos en la LCSP
23. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK	**23. PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN**
Administrazioari honakoak dagozkio: a) kontratua interpretatzea b) kontratuan sortzen diren zalantzak argitzea c) interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea d) kontratua amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, SPKLan eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta horiek zehaztutako baldintza	Corresponden a la Administración las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las

eta ondorioak betez.		Administraciones Públicas.
24. KONTRATUA HIRUGARRENEI LAGATZEA AZPIKONTRATAZIOA		**24. CESIÓN DEL CONTRATO A TERCEROS. SUBCONTRATACIÓN**
Zarauzko Udalak berariaz baimendu ezean, adjudikaziodunak ezingo dizkio kontratuaren eskubideak eta betebeharrak beste pertsona edo erakunderen bati laga edo eskualdatu.		La empresa adjudicataria no podrá sin previa autorización expresa del Ayuntamiento de Zarautz, ceder ni traspasar los derechos y obligaciones derivadas del contrato, a otra persona o entidad.
Halaber, aurretik Udalak espresuki baimendu ezean, adjudikaziodunak ezingo du lanen zati bat hirugarren batekin hitzartu edo azpikontratatu.		La empresa adjudicataria tampoco podrá subcontratar ni concertar con terceros la realización parcial de la prestación, salvo que el Ayuntamiento lo autorice expresamente.
25. DATU PERTSONALEN BABESA		**25 PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL**
Datu pertsonalen tratamendutzat joko dira pertsona fisiko identifikatuei edo identifikagarriei buruzko datuak biltzeko, grabatzeko, gordetzeko, prestatzeko, aldatzeko, blokeatzeko eta ezabatzeko eragiketa eta prozedura teknikoak, automatizatuak izan zein ez, bai eta komunikazioetan, kontsultetan, interkonexioetan eta transferentzietan sortzen diren datu-konexioak ere.		Por tratamiento de datos de carácter personal se entenderán las operaciones y procedimientos técnicos de carácter automatizado o no, que permitan la recogida, grabación, conservación, elaboración, modificación, bloqueo y cancelación, así como las conexiones de datos que resulten de comunicaciones, consultas, interconexiones y transferencias que afecten a cualquier información concerniente a personas físicas identificadas o identificables.
Baldin, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, kontratua dela-eta, datu pertsonalak tratatzen edo eskuratzen baditu, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak hogeita bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoa eta ondorengo arauak beteko ditu:		En el caso de que el contrato conlleve tratamiento de datos de carácter personal o el acceso de la empresa contratista o subcontratista a datos de este carácter, se estará a lo dispuesto en la disposición adicional vigésima quinta de la LCSP, y a las siguientes reglas:
1. Tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak kontratistak.		1. La contratista únicamente tratará los datos conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento.
2. Tratamenduaren xede diren datu pertsonalak kontratuaren helburua betetzeko bakar-bakarrik erabiliko dira; ezingo dira, beraz, beste ezertarako erabili.		2. Los datos personales objeto del tratamiento serán utilizados, única y exclusivamente, para la realización del objeto del contrato, no pudiendo ser destinados a finalidad diferente a la señalada.
3. Kontratu honen ondorioz tratatutako datu pertsonal bat bera ere ez zaie hirugarrenei jakinaraziko. Horrenbestez, kontratistak hitz ematen du datuok edo horiekin sortutako fitxategiak ez dizkiola jakinaraziko, lagako, transferituko edo komunikatuko hirugarren bati, ez ahoz ez idatziz, ez bitarteko elektronikoen bidez, ez paper bidez, ez sarbide informatikoen bidez, ezta ikusteko ere.		3. Ninguno de los datos personales tratados como consecuencia de este contrato será facilitado a terceros. A tal efecto, la contratista se compromete a no revelar, transferir, ceder o comunicar dichos datos o los ficheros creados con los mismos, ya sea verbalmente o por escrito, por medios electrónicos, papel o mediante acceso informático, ni siquiera para su visualización, a ningún tercero.

4. Datuak isilpean edukitzeko betebeharra dute bai kontratistak bai kontratuaren xede den zerbitzuan esku hartzen duten langile guztiek, Datu Pertsonalen Lege Organikoan aipatzen den bezala. Kontratua bete edo suntsitu delako iraungi ondoren ere, betebehar horrek iraun egingo du.		4. La contratista y todo el personal que intervengan en la prestación objeto del contrato quedan obligados por el deber de secreto a que se refiere la Ley Orgánica de Protección de datos de carácter Personal. Este deber perdurará aún después de que el contrato se haya extinguido bien por su cumplimiento bien por su resolución.
5. Kontratistak hitz ematen du datuen babesaren arloko indarreko araudian eta Segurtasuneko Eskema Nazionalean eskatutako bitarteko tekniko, administratibo eta antolakuntzakoak hartuko dituela, hitzarmenaren xede den zerbitzua betetzeko behar diren datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko:		5. La contratista se compromete a adoptar las medidas técnicas, administrativas y organizativas exigidas por la normativa vigente en materia de protección de datos, necesarias para garantizar la seguridad de los datos de carácter personal tratados para la realización de los trabajos objeto de este contrato:
a) Horri dagokionez, lanean hasi aurretik, enpresak kontratazio-organoari zerrenda bat emango dio, datu pertsonalak eskuratzeko aukera izango duten langile guztien izenekin, abizenekin, funtzioekin eta lana garatuko duten lekuekin. Kontratua bete bitartean langile berriak sartu edo daudenei baja eman behar bazaie, enpresa adjudikaziodunak zerrenda berri bat entregatuko du, aldaketa gertatu denetik gehienez ere astebeteko epean. Bai enpresa adjudikaziodunak bai zerrenda horietan azaltzen diren langileek formalki hitz eman behar dute, idatziz, tratatutako datuei buruzko sekretu profesionala gordeko dutela.		a) A este respecto, la empresa deberá entregar al órgano de contratación antes del inicio de los trabajos una relación con el nombre, apellidos, funciones y lugar donde van a desarrollar el trabajo de todo el personal que tenga acceso a los datos de carácter personal. Si durante el curso de la ejecución del contrato fuera necesario incorporar o dar de baja a personal, la empresa adjudicataria entregará una nueva relación en un plazo máximo de una semana desde que sucediera este hecho. Tanto la empresa adjudicataria como todo el personal que figure en estas relaciones deberán comprometerse formalmente por escrito a mantener el secreto profesional con respecto a los datos tratados.
b) Adjudikaziodunak baldintza teknikoetan zehazten diren segurtasun-neurriak aplikatuko ditu tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan, baldin eta halakorik zehazten bada.		b) La adjudicataria se obliga a implementar las medidas de seguridad con respecto a los centros de tratamiento, locales, equipos, sistemas y programas que, en su caso, se especifiquen en los pliegos técnicos.
c) Kontratuaren xede den zerbitzua bukatu ondoren, adjudikaziodunak itzuli edo suntsitu edo ezabatu egingo ditu datu pertsonalak dituzten fitxategi guztiak. Suntsiketa egin ondoren ezinezkoa izango da horiek berreskuratzeko edozein prozesu aplikatzea. Akta bidez egingo da fitxategiak itzultzearen edo suntsitzearen ziurtagiria, eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak eta lanen zuzendaritza betetzen duen pertsonak sinatuko dute. Aktan zirkunstantzia horiek guztiak jasoko dira.		c) Una vez finalizada la prestación objeto del contrato deberán devolverse todos los soportes o destruir o borrar todos los ficheros que contengan datos de carácter personal por parte de la empresa adjudicataria. La destrucción se realizará de tal manera que sea imposible aplicar cualquier proceso de recuperación. La certificación de la devolución o destrucción de los ficheros se realizará mediante un acta suscrita por el representante de la adjudicataria y por el director de los trabajos en la que consten tales circunstancias.

Kontratatutako erakundea datu pertsonalen lagapen-hartzaile bada (hirugarrenari aplikatu beharreko legezko betebehar edo gaikuntza baten edo datuak babesteko araudian aurreikusitako beste edozein babes juridikoren arabera), bai Udala bai erakunde kontratista tratamendu-jardueren erantzukidetzat hartuko dira.	En caso de que la entidad contratada resulte cesionaria de datos personales de acuerdo con una obligación o habilitación legal aplicable al tercero o cualquier otro amparo jurídico previsto en la normativa de protección de datos, tanto el Ayuntamiento como la entidad contratista serán consideradas corresponsable de actividades de tratamiento.
Horrela, entitate bakoitza arduratuko da DBEOren printzipioak betetzeaz eta interesdunei tratamenduaren berri emateaz, kontratuaren edo zerbitzuaren xedearen arabera beren datuak lagatzeko aukera adierazten duten klausulen bidez.	De este modo, cada entidad será responsable de cumplir los principios del RGPD e informar a las personas interesadas acerca del tratamiento mediante cláusulas en las cuales se indique la posibilidad de cesión de sus datos de acuerdo con el objeto del contrato o servicio.
Pertsona interesdunek eta legitimatuek eskubideak baliatzeko eskaerak egiten badituzte, eta eskaerak entitate lagapen-hartzailearen datuei eragiten badie (esaterako, lagapenerako baimena baliogabetzea), eskaera jasotzen duen erakundeak berehala jakinaraziko dio datuen erakunde lagapen-hartzaileari.	En caso de que se produzcan solicitudes de ejercicio de derechos por parte de personas interesadas y legitimadas y la misma afecte a datos de la entidad cesionaria, como la revocación del consentimiento para la cesión, o de cualquier otra índole, la entidad receptora de la solicitud informará sin dilación a la entidad cesionaria de los datos.
Aldeek segurtasun-neurriak aplikatu beharko dituzte adingabeen datu-transmisioetan, informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta alderdien arteko harreman juridikotik kanpoko hirugarrenei sarbidea eragozteko ere.	Las partes deberán aplicar medidas de seguridad a las transmisiones de datos de menores que garanticen la confidencialidad de la información, así como impedir su acceso a terceros ajenos a la relación jurídica entre las partes.
.	
III.- <u>IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA</u>	**III.- <u>NATURALEZA, RÉGIMEN JURÍDICO Y JURISDICCIÓN COMPETENTE</u>**
26. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA	**26. NATURALEZA Y RÉGIMEN JURÍDICO**
Klausulen agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, honako hauek bete beharko dira: a) Sektore Publikoko Kontratuen Legea; b) Herri Administrazioetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; c) Eta kasuan kasu, Administrazio Publikoen kontratazioan aplika daitezkeen arauak.	El contrato que en base a este pliego se realice, tendrá carácter administrativo y en todo lo no previsto en él se estará a lo dispuesto en la LCSP, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, y demás normas que, en su caso, sean de aplicación a la contratación de las Administraciones Públicas.
Administrazio-klausulen Agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.	En caso de contradicción entre el presente Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el resto de la documentación técnica unida al expediente, prevalecerá lo dispuesto en este Pliego.
27. JURISDIKZIO ESKUDUNA	**27. JURISDICCIÓN COMPETENTE**

Era berean, kontratutik sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bitartez konpon daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakorekin bat etorriz.

Kontratua interpretatzetik, aldatzetik, bukatzetik eta horren ondorioetatik sortzen diren auziak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Horretarako hartutako akordioek administrazio-bidea agortuko dute. Akordio horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legean xedatutakoarekin bat etorriz; dena den, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, interesdunek aukeran izango dute berraztertze errekurtsoa jartzea.

Bestalde, SPKLaren 44 artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, kontratu honi kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahal zaio.

Zarautz, 2021eko abuztua

I. ERANSKINA. DEUC

II. ERANSKINA. ESKAINTZA

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Posta Kodea ..... Nortasun-agiria ..... Telefonoa .....

Ordezkariaren datuak (ordezkaririk egonez gero)
Izen-abizenak .....
Helbidea ..... Posta Kodea .....
Nortasun-agiria edo IFK (pertsona juridikoa bada): ..... Telefonoa .....

Las cuestiones litigiosas que se deriven del contrato se entenderán sometidas a la jurisdicción contencioso-administrativa, no obstante lo cual, las partes pueden acordar el sometimiento de sus litigios a arbitraje, conforme a lo establecido en la legislación vigente.

Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos del contrato serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar a recurso contencioso-administrativo, conforme a lo prevista por la Ley reguladora de dicha jurisdicción, sin perjuicio de que los interesados puedan interponer recurso potestativo de reposición, previsto en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de 5 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Asimismo, de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 44 y siguientes de la LCSP, el presente contrato será susceptible de recurso especial en materia de contratación.

Zarautz, agosto de 2021

ANEXO I. DEUC

ANEXO II. PROPUESTA

D ....., con domicilio en ..... CP....., DNI nº ....., teléfono ..... .en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de ....., con domicilio en ....., teléfono ....., y DNI nº .....), enterado/a del procedimiento convocado por el Ayuntamiento de Zarautz para el

ZARAUZKO UDALERAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA ZERBITZUA ADIERAZPENA: 1.-Konpromisoa hartzen dudala onetsitako pleguen arabera zerbitzu hau prezio eta baldintza hauetan gauzatzeko: - Telefono bidezko arreta-zerbitzua: …. euro orduko BEZ barne (….. euro + ….. euro BEZ) eta teleoperadore bakoitzeko, - Koordinazio zerbitzua: …… euro orduko BEZ barne (……. euro + ……. euro BEZ barne) -Azpiegitura teknikoa (telefonia, lizentziak, azpiegitura….): ……. euro urtean BEZ barne (……. euro + ……. euro BEZ) 2.-Administrazio-klausula zehatzen eta teknikoen agiria, eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, nire gain hartu eta ontzat ematen ditut oso-osorik. 3.-Kontratuak burutzeko indarrean dagoen araudiak eskatutako baldintza eta betebehar guztiak betetzen ditut. 4.- Era berean, lanaren zein zergen arloan legeak dioena edo araututa dagoena beteko dut. .....-(e)n, 20….ko ..... –ren .....-(e)an Sinadura	**SERVICIO DE ATENCIÓN TELEFÓNICA PARA EL AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ** DECLARO 1º.- Que me comprometo a su ejecución con arreglo a los pliegos aprobados, por los siguientes precios y condiciones: -Servicio de atención telefónica: …… euros/hora IVA incluido (……. euros + …… euros de IVA) por persona teleoperadora, -Servicio de coordinación: ……. euros /hora IVA incluido (……. euros + ……. euros de IVA) -Infraestructura técnica (coste telefonía, licencias, infraestructura….): …….. euros/año IVA incluido (…… euros + ……. euros de IVA) 2º Que conozco los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Pliegos de Prescripciones Técnicas y demás documentación que ha de regir el contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad. 3º.- Que cumplo con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para la ejecución del contrato. 4º.- Que asimismo me obligo al cumplimiento de lo legislado o reglamentado en materia laboral y tributaria. En ..... a ..... de ..... de 20 Fdo: